


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2023-11-17 / 795 ZENBAKIA / 19. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



**Hitzordu bikoitza
Urnietako Saroben,
Amaia Agirre
Gonzalez alpinista
gogoan hartuta** / 10

**Negozio eta enpresa
txikiei begirako diru-
laguntza lerroa
aurkeztu du
Andoaingo Udalak** / 5

**Behobia-Donostia
lasterketa
ezagunaren
sailkapena eta
argazki-bilduma** / 12-13



Santa Zeziliaren atarian

Andoaingo Bandaren emanaldia eta Urnietako musika-eskolaren kalejira / 8-9

FINALISTAK

Kazetaritza Saria

BIDEAK podcasta, NAIZ irrutiak eta Mediabaskok elkarlanean sortutakoa.

Zelan sentitzen zara?, GEURIA komunikabidearen ale berezia.

KINKA podcasta, BERRIA.

Urte batetik bertzera, mundu batetik bertzera, Xabier Itzainaren kronika sorta dantzareus hedabidean.

Komunikazio Saria

LORE HOSTOAK podcasta, EITB Podcast.

#10garrena podcasta, EITB Podcast.

MUAK ET webserien.

HARPA JOTZEN podcasta, EITB Podcast.

SARI BANAKETA EKITALDIA

Eguna: Azaroak 29, asteazkena.

Ordua: Basteroko ateak 18:50ean itxiko dira, eta ekitaldia 19:00etan hasiko da.

Lekua: Andoain, Bastero Kulturgunea.

Kazetaritza eta Komunikazio sariak ezagutzera ematearekin batera, ohorezko mugarrira emango zaio Menane Oxandabaratz kazetariari.

<http://rikardoarregikazetaritzasaria.eus>



35. Mintzoen arrago
RAKS
RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

"Pornoak emakumeen aurkako indarkeriaren eskola bat da"

Pornografiak eragiten duen kalteaz ohartarazteko kanpaina abiatu dute hiru foru aldundiek, EUDELek eta Emakundek. Esparru horretan azpimarra jartze berebizikoa dela uste dute



Erakunde guztiek modu koordinatuan lan egin dute kanpaina gauzatzeko. IREKIA

Erredakzioa ANDOAIN

Azaroaren 25, Emakumeengana-ko Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean kanpaina bakarria izango da Euskadin. Kanpaina zehatza da, goiburutik hasita: "Pornoak emakumeen aurkako indarkeriaren eskola bat da". Adierazpen horren adierazgarri zenbait datu eskaini zituzten kanpainaren aurkezpen-ekitaldian:

- Eszena pornografikoen % 88,2k emakumeen aurkako indarkeria fisikoa edo hitzekoa du.
- Pornoarekin lehen kontaktua izateko batez besteko adina 12 urtekoa da.
- Nerabeen % 33,4k uste du pornoak eragin handia duela beren sexu-harremanetan.

Nerea Melgosa Eusko Jaurlaritzako sailburuak nabarmendu zuen oso garrantzitsua dela erakunde guztiek modu koordinatuan lan egitea gizarteari mezu bakar bat helarazteko. Aurtengo ekimenari dagokionez, bere hitzetan, pornografia "indarkeriaren eskola bihurtzen ari da, harremanetan egin behar dutenari buruzko jarraibideen liburu moduko bat. Pornografia imajinario

erotiko kolektibo bat eraikitzen ari da, non emakumeen aurkako indarkeriazko jarrerak normalizatzen diren. Gehien kontsumitzen den pornoaren bidez, maskulinitate bortitza eta menderatzailea indartzen da, eta feminitate atsegina, kosifikatua, beti gizonezkoen gozamenaren eskura dagoena".

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nerea Isasi Berdintasun zuzendariak azaldu duenez, azpimarra jartzea oso garrantzitsua da indarkeria matxista ematen den eremu berri horietan: "Ingurune digitalean hedatu eta irararazi egiten dira mendekotasun-egoerak, indarkeria matxistaren dinamika berriak sortuz".

Esther Apraiz EUDELeko presidenteak azaldu zuen euskal udalei zuzendutako Azaroaren 25eko Adierazpena kanpainarekin bat datorrela: "EUDELek mekanismo guztiak aktibatzea proposatzen du, emakumeek beraien desioak, afektuak eta sexu-portaerak derrigortzerik eta indarkeriarik gabe adierazteko aukera izan dezaten, genero-estereotipoak eta genero-aginduak alde batera utzita".

PORNOA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ESKOLA BAT DA

Eszena pornografikoen % 88,2k emakumeen aurkako indarkeria fisikoa edo hitzekoa du.

Ez dezagun sexu-heziketa bere eskuetan utzi.

azaroak
25

Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111

DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU

Memoriaren eguneko adierazpena

Bakea izan du hizpide Elkarbizik, aurtengo hitzorduan: "Bakea ez da besterik gabe indarkeria eza. Bake positiboaz hitz egin behar dugu. Eta hor sartzen dira giza eskubideak. Ez dago bakerik, bake positiborik, sakonik, iraunkorrik, justiziarik gabe. Eta honek esan nahi du, gutxienez, egia, justizia eta kalte-ordaina eman behar zaiela giza eskubideen urraketa guztiak pairatu duten guztiei". Mikel Arregik egindako adierazpenean, gogoan hartu zituzten munduan "askatasunagatik sufritzen ari diren biktima guztiak", batez ere, "haurrak: Ukrainian eta Palestina/Israelen...".



AIURRI

Prestaketa-lanak

Azaroaren 30ean zaintza aldarrikatzeko greba feminista deituta dago. Andoainen, talde bat osatu da, eta, datorren asterako, hitzordu ugari antolatu dituzte. Azaroaren 22an, esaterako, "Zergatik greba feminista orokorra?" izeneko mahai-ingurua Basteron (18:30). Eta, ostegunean, "Greba Feminista Orokorrera goaz!" agerraldi jendetsua (18:30).



TRAKA

GORA ETA BEHERA



Urrats berria, generoaren ikuspegitik

Kale-izendegian eta eraikinen izendapenetan emakumeen presentzia txikia da. Andoaingoa ez da kasu bakana, inguruotako udalerrietara begira jarrita. Bada, joan zen larunbataz geroztik, Aita Larramendi Ikastolako Bazkardoko eraikina Juanita Alkain eraikina izena hartu du. Generoaren ikuspegitik, txalotu beharreko ekimena da.



AIURRI

KOMUNITATEA

AEK URNIETA

Bidelagun bila, Mintzalagun talderako



AEK

Mintzalagun ekimenerako bidelaguna bila gabiltza eta, oraindik, irekita dago Hikalagun taldean sartzeko aukera. Euskararen alde zure hondar alea jarri nahi duzu? Euskaraz praktikatu nahi dutenei lagundu nahi diezu? Urtean 10 ordu euskarari eskaintzeko prest zaude? Hala bada, mintzalagun taldea aukera aproposa da horretarako. Izan ere, euskara praktikatzeko elkartzaren lagun talde batek bidelaguna behar du: euskaraz erraz moldatzen den herritarra, gainerakoei elkarriketan laguntzeko. Ez da euskarari aditua izan behar, ez da euskara titulurik eduki behar. Asteazkenetik 19:00etatik 20:00etara elkartzea da asmoa. Urratsa ematera animatuz gero, urnieta@aek.eus helbidera idatzi edo 662338747 telefonora dei dezakezu.

Parte hartuz gero, lagunak egiteaz gain, sariak eta deskontuak jasotzeko aukera ere izango duzu.

Asteazkenetik 19:00etatik 20:00etara elkartzea da asmoa. Urratsa ematera animatuz gero, urnieta@aek.eus helbidera idatzi edo 662338747 telefonora dei dezakezu.

Hitanoa praktikatzeko aukera

Bestalde, hitanoa praktikatu nahi duten herritarrek aukera dute Hikalagun taldean parte hartzeko. Ostegunetik 17:00etatik 18:00etara, Guria tabernan elkartzaren da talde bat eta tertulian aritzen dira, hitanoa landuz. Bertan parte hartzea doakoa da eta herritar guztiek dute aukera.



AIURRI

Obra txikia, eragin handia

Zumea kalearen eta plazaren arteko pasabidea maiz erabiltzen da, Andoaingo joan-etorri gehienetarako. Egun hauetan, Arruti gozotegi parean, azpiegitura-lanak berritzen ari da Andoaingo Udala. Trafikoan eta oinezko pasabidean eragina izaten ari da. Gehienez ere hiru asteko iraupena izango dute eraberritze-lanak.

KOMUNITATEA

ERRIGORA EUSKAL HERRIA

Hamar urteko argazki erraldoia berrosatu dugu

Aurtengo kanpainak eman du berea: argazki bete-betea osatu dugu ekoizle, euskaltzale, auzolangile eta milaka kontsumitzaileekin.

14.000tik saskitik gora iritsiko dira hurrengo egunetan beste horrenbeste etxetara. Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskalgintzara, berriz, 185.000 eurotako ekarpena. Horrenbestez, 10 urtez euskalgintzara bideratutako kanpaina 2 miloi eurora iritsi da!

Buñuelen, kutzaz beteteako kamioiak atzean, Errigoraren komunitatearen beste argazki bat osatzeko elkartu gara hamarnaka lagun. Hemen gaude Erriberako euskaltzale, auzolangile eta ekoizleak, zorion eta esker on mezuari aurpegiak gehitzeko.

Urriaren 20an udazkeneroko "Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka" kanpainari hasiera ematean, Errigoraren 10 urte bete-bete ospatzeko gonbidapenez gain, saskiak eskatzeko deia zabaldu genuen. Zera genioen zehazki: "Argazki bete-betea berrosatuko dugu. 10 urte



ERRIGORA

betetzen ditugun honetan, udazkeneko kanpainan, Errigoraren argazki erraldoia, bete-betea, (ber)osatu dezagun. Garenak, izan garenak eta izan nahi dugun guztiak batu nahi ditugu".

Bada, Errigoraren egiteko moduari segituta, gaur arteko egunetan, eskuz-esku eta ahoz aho ibili da kanpaina. Aurtengo kanpainak Errigoraren hamaika argazki utzi ditu, geroz eta oparoagoa izan den hamarkada oso baten adierazgarri gisa:

- Hainbat ikastola, eskola, euskaltegi eta ekoiztetxetan, ondoren, kutzetan sartu ditugun esker on postalak idazten aritu gara.
- Ablitasen lehenik eta gero Durangon Errigorako ehundaka boluntariok kutzak montatu eta paleetan atondu ditugu auzolanean.
- Bilboko AEKren euskaltegieta Pituxa klown-aren emanaldiak izan ditugu gelaz-gelaz; Zangozako ikastolan guraso, irakasle

eta ikasleen aurkezpen jaia izan genuen; Lesakako eskolan ere aurkezpen xume bat...

- Kanpaina bezperatan, Agerraldiaren eskutik, Tafallan, Gure Zirkua izan genuen eta aurtengo dozenaka ludoteken aurkezpena Ager Txiki egunean.
- Eta, batez ere, Errigorako boluntarioak, sarekide izendatu ohi ditugunak, dozenaka ekimen xume antolatu ditugu herri-herri: Markinan, Iruñeko Donibane auzoan, Beasainen, Baionan, Gasteizen,...

Argazki horiek guztiak, Errigoraren komunitateaz gain, komunitate hori saretu eta emozionatzen duten balioak isladatu dituzte beste behin ere:

- Zubigintza: pertsona, lurralde eta ideia desberdinen bat egitea.
- Ekintza: hitzetan baino, egiten dugunean aurkitzea sinisgarritasuna.

- Ahalduntzea: txikitasantetik amets handia eskuratzeko gaitasuna badugula ikuste.

Aipatutako kanpaina hasierako prentsaurreko hartan, Mila Kintanaren (Hernaniko Errigoraren saski eskatzaile fidela) desioa ondokoa izan zen: "Nik, aurtun, berriro eskatu dut eta deia luzatzen dut, noizbait, eskatu duten guztiak berriro eska dezaten".

Guztiak ez dute eskatu eta desioa ez da guztiz bete, baina nabarmena izan da berriro saskia eskatzera bildu den lagun-kopurua. Horri esker, besteak beste, hara aurtengo uzta, zenbakitan:

- 14000tik gora saski.
- Ager eremuko AEK; Tuteran, Lodosa eta Vianako ikastolak eta eskoletako D ereduko lerroak eta Agerraldia bultzatzeko 185.000 euro.
- Guztira, 10 urteotan, udazkenetako kanpainak sortutako diru-ekarpena euskalgintzarako: 2 miloi euro.

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

10 urte
bete-bete

errigora.eus



Parte-hartze prozesuaren hamabostaldi erabakiorra

Partaidetzako aurrekontuen prozesuaren lehen fasean inoiz baino proposamen gehiago jaso ziren. 256, guztira. Horietatik guztietatik 14 aukeratu ditu batzorde teknikoak. Herritarrek, beren botoarekin, azken hitza izango dute

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Fase erabakiorran sartu da partaidetzako aurrekontu-prozesua. Lehen fasean, 256 proposamen jaso ziren, aurreko bi edizioetako kopurua nabarmen igoz. Proposamenak jasota, Andoaingo Udal Lansail guztietako kideez osaturiko mahai teknikoak azterlanari ekin zion. Azkenerako, 14 proposamen iritsi dira bigarren fasera. Andoaingo Udalak, bigarren fase honetan ere, parte hartzera gonbidatu nahi ditu andoaindarrak.

Parte hartzeko aukera,

azaroaren 30era bitarte zabalik

Azaroaren 15etik 30era irekiko da bigarren hautaketa-prozesua, prozedura beretsuarekin. Etxean jasotako eskuorria bete eta herrian barrena aurki daitezkeen hautes-ontzietan utzi beharko dira, edo on line bidez egin ahal izango da, Andoain.eus webgunean aurki daitezkeen formularioa betez.



Goenaga (EAJ-PNV), Iparragirre (Elkarrekin Podemos), Alvarez (alkatea), Alkain (PSE-EE), Lasa (EH Bildu) eta Goiatz Salbador dinamizatzailea. AIURRI

Udalak ohar bidez, finalisten xehetasunak eman ditu: "Finalera iritsitako proposamenak askotarikoak dira. Besteak beste, irisgarritasuna, digitalizazioa, ariketa fisikoa, hirigintza edota lehen sektoreari dagozkionak dira. Herritarrek jasotako eskuorrian 14 egitasmo horien izena, deskribapena eta aurreikusitako diru-partida zehaztuko dira. 14 horietatik herritar ba-

koitzak 3 aukeratuko ditu, eta norberaren interes edo gustuaren arabera puntuazioa ezarriko du. Gogokoen duenari 3 puntu emango dizkio; bigarren gogokoenari, 2; eta hirugarren gogokoenari, 1".

2024ko Udal aurrekontuetan txertatuko dituzte boto gehien jasotako proposamenak. Aurrekontuaren 250.000 euro prozesu honetarako gorde baitira.

Hamalau proposamen aukeran

Dr. Huitzi

Auzoan irisgarritasuna bermatuko duen proiektua.

Kalistenia parkea

Barra metaliko paraleloak edota dominadak egiteko.

Merkatu-plaza

Adinekoei autoa denbora gehiagoz espaloi gainean utzi ahal izatea, merkatu egunean.

Kontziliazioa

Umeen urte osoko oporraldietan zaintzaileak kontratatu jarduera ezberdinak egiteko.

Digitalizazioa

Administrazio elektronikoko izapideetarako laguntza eta aholkularitza emateko zerbitzua.

Desfibriladoreak

Puntu estrategikoetan desfibriladoreak jartzea, eta formakuntza eskaintzea.

Ikasgela

Andoaingo ikasle guztientzat asteko egun guztietan irekita egongo den ikasgela.

Gizarte zerbitzuak

Eskaintza zabaltea arazo kognitiboak dituztenen laguntza premiak asetzeko.



Eskuorria udalerrri osora iritsiko da, egun hauetan. AIURRI

Bekoplaza

Eserleku berriak, gainazal leun eta garbia...

Bastero

Auditorioko eserlekuak berritzea.

Iturriak

Kopuruan handitzea.

Txurreria

Iluntasuna eta hormen egoera hobetu, Joakin Larretara igotzeko lorategiak txukundu...

Barandak

Andoaingen barrena barandak jartzea (eskilarak...).

OKM bultzatu

Bertako baserriarren produktuen salmenta sustatu.

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUA 2024 BIGARRREN FASEA MARTXAN DA

Zuk erabakiko duzu **250.000** euro zertan inbertitu.

2023ko azaroaren 30era arte parte hartu.

INFORMAZIO-GUNEA

Azaroak 18, larunbata.

11:00-13:00, Zumea plaza.

Azaroak 21, asteartea.

11:00-13:00, Eskola kalea (Merkatua).

Azaroak 23, osteguna.

17:00-19:00, Goikoplaza.



ANDOAINGO UDALA





Joxe Mari Oartzabalek Andoaingo Aita Larramendi ikastolaren ereserkia sortu du, eta larunbatean estrainekoz eskaini zuten. Aurrealdean, LH5 eta LH6 mailako ikasleak danborrak eta barrilak joz. Atzean, Gora Kaletxiki txaranga. AIURRI

Juanita Alkain eraikina

Hilabete honetan, ekitaldi-sortaren bidez, 60. urteurrena ospatzen ari dira Andoaingo Aita Larramendi ikastolan. Aurreko larunbatean Bazkardoko gunea Juanita Alkain eraikina izendatzeko ekitaldia antolatu zuten. Asteburuan ikasle ohien bazkaria izango da

Xabier Lasa ANDOAIN

Garazi Kamiok gidatu zuen ekitaldian, Xabier Etxeberria Ikastolako lehendakariak, Andoni Alvarez Andoaingo alkateak eta Mailu Arruti Juanita Alkainen familiako kideak hartu zuten hitza. Etxeberriak adierazi zuen Aita Larramendi ikastola, egun, euskarak Andoain duen arnagunea dela: "Paper garrantzitsua izan du, eta izaten jarraitzen du Andoain euskaldunak eta euskaltzaleak hezteko garaian". Gehitu zuenez, orain 60 urteko ilusio berberarekin ekiten diote egunero, "gure haur eta gazteen etorkizuna eraikiz eta gure hizkuntzari arnas-berria eman nahian".

Azkenik, Juanita Alkaini aitortza egin nahi izan zion Etxeberriak: "Bere testamentuan, euskarazko eskolak eman ahal izateko utzi zuen bere etxea. Bada, Andoaingo ikastolaren lehen pausoak gidatu zituzten kideek Aita Larramendiren Al-

kainen izena aukeratu zuten bezalaxe, gure aitortza egin nahiko genioke Juanita Alkaini. Berak ireki zuen Andoain lehen ikastola, eta nahiz eta hura ixtera behartu zuten, Aita Larramendi ikastolak hartu zuen bere lekukoa".

Juanita Alkain Udal langilea izan zen

Alvarezek zorionak luzatu zizkien Ikastolako kideei, "60 urte betetzeagatik eta izen berriaren egokitasunagatik". Ekitaldian bildu zirenei gogoratu zien Alkain udaleko langilea izan zela 1901-1909 epealdian. "Garai hartako artxiboetan azaltzen denez, udal agintariak asko estimatzen zuten Alkain. Legez, hurrei gaztelaniaz irakatsi behar zitzairen, baina herria erabat euskalduna zen, eta agintariak azpimarratzen zuten nola Alkainek, ondo irakasteaz gain, gertutasunez euskaraz irakasten ziela Andoaingo hurrei".

Mailu Arrutiren adierazpena

Arrutik, Juanita Alkainen senitartekoen izenean, 60eko hamarkadan sortu ziren ikastolak hartu zituen gogoan eta gehitu oraindik eten ez den kate baten barruan ikusi behar direla. Hain zuzen, katebegi horren eragile desberdinak goraiatu nahi izan zituen: "Dotrina euskaraz irakasteko utzi zuen bere ondasuna. Eugenio Arregik ondo bideratu zuen ondasun hori ikastola bilakatu zedin, eta ondoren, neska gazte batzuk andereño izateko prestatu ziren, eta baita arriskatu ere! Eta zer esanik ez gure gurasoak, ez legezko eskola batera eraman baitzituzten beren haurrak".

Arrutik, azkenik, ohartarazi zuen ikastolek bizitza oparo eta luzea izan dezaten belarriak tente eduki beharko direla, "izan ere, euskara oraindik erasotua baita; ikusi besterik ez dago aurrekoan zergatik bildu zen jendetza Bilbon".

Aita Larramendi ikastola



Senideak eraikinaren kanpoaldean. AIURRI

Juanita Alkainen ondorengoak Mailu Arrutik eskertza adierazi zuen, etxeko guztien izenean. Ekitaldira hainbat senide hurbildu ziren. Ezker eskuin, Mamen Garcia, Luix Mari Garcia, Irati Karrera, Maria Pilar Landa, Marilis Arruti, Mailu Arruti eta Joxe Ramon Karrera.



Etxeberria Aita Larramendi ikastolako lehendakaria, hizketan. Atzean, hitza hartu zuten Alvarez alkatea eta Kamio aurkezlea. AIURRI

Aita Larramendi ikastolaren adierazpena Juanita Alkainen ondorengoak, Aita Larramendi ikastolako zuzendaritza, Andoaingo alkatea... Hitza hartu zuten guztiek ikastolaren iragana aipagai izan zuten, oraina eta etorkizuna bazterrean utzi gabe.



LH2ko ikasleek Olatz Zugastiren "Bizirik gaudelako" kantua abestu zuten.

Joxe Mari Oartzabalen zuzendaritzapean Kantu bat abestuz hasiera eman zioten ekitaldiari. LH2 mailako ikasleek Olatz Zugastiren "Bizirik gaudelako" abestia eskaini zuten, Gora Kaletxiki Bandak lagunduta.

Negozio eta enpresei begirako laguntza-lerroa

Andoaingo Udaleko Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria Sailak tokiko enplegua, kontsumoa eta ekonomia sustatzeko laguntza ekonomikoen programaren berri eman du, udalerriko negozio eta enpresa txikiei zuzenduta



Dorronsoro Sustapen ekonomikoko udal langilea, Alkain zinegotzia (PSE-EE), Alvarez alkatea, Yurrebaso Sustapen ekonomikoko udal langilea eta Iparragirre zinegotzia (Elkarrekin Podemos). Xehetasun gehiago Aiurri.eus gunean ikusgai dagoen bideoan. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Hazkunde iraunkorraren alde lan egitea xede izanik, trantsizio digitala, ekologikoa, inklusioa, lurralde-koherentsia eta eragin soziala duten ekimenak lagunduko dituzte. Bost laguntza-lerro jarri dituzte martxan, gastu korronteari eta berrikuntzari eragiten diotenak. Hots, alokairua edo softwarearen berrikuntza:

1 Herriarren kontratazioa

Helbide soziala eta fiskala Gipuzkoan izan behar du eskatzaileak. Laguntza 1.500 eta 4.000 euro artekoa izango da, hitzartutako kontratuaren iraupenaren arabera.

2 Negozio berriak

Negozio berriak sortzeko eta gure udalerrian daudenak transmititzeko eta/edo jarraitzeko diru-laguntzak ematen dira. Laguntzaren zenbatekoa 1.250 eta 1.925 euro artekoa izango da.

3 Lokalen alokairua

Udalerriko hainbat gunetan hutsik dauden merkataritza-lokalak eta Martin Ugalde Kultur

Parkeko coworking bulegoak hartu nahi dituenarentzat, alokairuko lehen urteko kostuak diruz lagunduko dituzte, 895 eurotik 5.088 eurora bitarte.

4 Berrikuntza digitala

Inbertsioak diruz lagunduko dituzte softwarea, online merkataritza eta marketin digitala, prestakuntza eta aholkularitza teknologikoa, klimatizazioa, argiztapena eta ekonomia zirkularra sustatzen dituzten artean. Enpresen ezaugarrien eta egindako inbertsioen arabera, 1.250 eta 1.925 euro arteko laguntzak.

5 Inbertsioak

Irisgarritasunean egindako inbertsioak merkatalguneetan diruz lagunduko dira. Kasu horretan, laguntzaren gehieneko zenbatekoa 1.500 eurokoa izango da.

Informazio gehiago Ataria herritarrentzako arreta zerbitzuan, Andoaingo.eus webgunean, e-postaz (tokigarapena@andoain.eus) eta 943 304 221 telefono zenbakira deituta).

AZAROAK 25

Emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko eguna:
ERREPARAZIORAKO ESPARRUAK

Azaroak 16, osteguna **DOKUMENTALA + HITZALDIA**

"Guztiak jakin dezatela" Andoaingo egindako ikerketa banatuko da. "Indarkeria matxisten biktimen memoriari eta erreparazioari buruzko ahotsak". Dokumentala eta gero, Indarkeria Matxistaren eremuan erreparazioan aditua den Lidia Ruizekin (Mugarik gabe), eztabaida. Audioa: gaztelaniaz. Azpigituluak: euskaraz. **Bastero Kulturgunea, 18:30**

Azaroak 22, asteazkena **AMELI ETA XIRRIKITUEN JOSTUNEK. IPUIN KONTALARI MUSIKATUA**

Amaia Elizagoyen eta Irati Celestino. **17:00** Habiko ipuinak (4 urtetik gorakoentzat). **19:00** Munduko emakumeak (helduentzat). **Udal liburutegia**

Azaroak 24, ostirala **TXAPA LANTEGIA** Gazte Lokala, 17:30

BIDEOA
"Haurrak eta genero indarkeria"
(Ondoren, eztabaida haurrekin eta familiekin)
Ludoteka, 18:15



ANDOAINGO UDALA

Azaroak 25, larunbata **MUGIMENDU FEMINISTAK ANTOLATURIKO EKIMENAREKIN BAT EGINGO DA** 12:00

MURAL MARGOKETA
Ludoteka, 15:30

MURAL MARGOKETA
Gazte Lokala, 17:30

Abenduak 2, larunbata
AUTODEFENTSA FEMINISTA
Allurralde kiroldgia, 09:30-15:00

Guztiak jakin dezatela



Lurdes Iriondo musika eskolako hainbat ikasle, 2019ko ospakizunean. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Egunotan, udal musika eskola albotik igarotzen bazara, irakurle, erraz antzemango duzu melodia fin bat. Izan ere, entseguetan daude murgilduta burubelbarri bertako ikasleak, hemen baitator Santa Zezilia eguna, musikarien eguna, hain justu ere. Bertan parte hartuko dute, besteak beste, Amets Zubillagak (klarinetea), Xabier Regillagak (saxofoia), Jone Izagirrek (trikitixa, panderoa) eta Enara Donaverak (trikitixa, pianoa).

Ikasturte osoan makina bat klase izan ohi dituzte. Hala, pozgarria da guztientzat, tarteka, kalera atera eta landutakoa jendaurrean, etxekoei, lagunei nahiz gainerako bizilagunei erakustea. Hala, horretarako aukera izango dute azaroaren 22an, datorren asteko asteazkenean. Arratsaldeko 17:30ean abiatuko dira guztiak musika eskolatik, kalejiran, herriko zenbait plazatan geldialdiak egiteko: San Juan plazan, Plazido Muxikan eta Etxeberri plazan.

Nork bere instrumentua jo arren, guztiak izan dute harreman estua txikitatik musikarekin. Izan ere, astero-astero birritan joaten dira musika eskolara, taldeko nahiz bakarkako klaseak jasotzera. Hala, hirugarren hitzordu bat ere izan ohi du Regillagak, solfeoko ikasketak gauzatzen ari baita. Herri txikia da

Musikarien egunaren atarian

Musikarien eguna ospatuko da herrian, datorren azaroaren 22an. Hori horrela, kalera aterako dira Lurdes Iriondo musika eskolako ikasleak, plazaz plaza, asteazken arratsaldea girotzeko asmoarekin

Urnietan eta, gutxi gorabehera, guztiak elkarren ezagunak direla aitortu du Izagirrek, nahiz eta musika-eskolaren bidez harre-

manak sakontzeko aukera izan duten. Hori ez ezik, "beste herri batzuetako jendea ezagutzeko" ere baliagarria izan delakoan da

Donavera. Horrela, partiturak irakurtzen eta horiek musika-instrumentua eskuan dutela interpretatzen ikasten dute. Bada,

ikasturte osoko ahalegina jendaurrean erakusteko aukera ere izaten dute. "Urduri jartzen zara horrelakoetan", dio Regillagak, "baina, ondoren, ondo pasatzen duzu". Gabonetako kontzertua, herriko festak, ikasturte amaierako kontzertua... Askotariko hitzorduak izaten dira herrian, eta, horietan, musika-eskolako ikasleek girotu ohi dute ospakizuna, Donaveraren hitzetan: "Beharbada, trikitixa jotzen dugunok maizago egiten dugu erakustaldia, kalejiretan parte hartzen dugulako". Ekimen horiek musika-eskolako atea irekitzeko baliagarriak dira, Izagirrerentzuz: "Garrantzitsuak dira, musikaren alde herrian mugimendua badagoela erakusteko".

Orain gutxi, urriaren erdialdean, mende erdiko ibilbidea ospatu zuen Txanbolin Txistulari Bandak. Tartean, kontzertu bat antolatu zuen, makina bat herrikiderek elkarlanean. Bertan izan ziren lau elkarrizketatuak. Lehen aldia zuten neurri horretako ikuskizun batean, eta ikusgarria izan zela aitortu dute, emanaldiak hartutako dimentsioa ikusita. Zubillagak, esaterako, gertu izan zituen lagunak oholtza gainean: "Nik jo bitartean gelakideak dantzan aritzea izan zen zailena, presio handiagoa sentitzen dudalako". Dena dela, gozatu ederra hartuta, gustura errepikatuko lukete horrelako zerbait, etorkizunari begira. Prest daude, horrenbestez, Santa Zezilia egunerako.

**SANTA ZEZILIA
EGUNeko KALEJIRA
17:30EAN ABIATUKO
MUSIKA ESKOLATIK,
AZAROAREN 22AN**



Zubillaga, Regillaga, Izagirre eta Donavera. AIURRI



Urnietako
udala

Santa Zezilia eguneko emanaldia, ostiralean

“Giroak” izenburua daraman kontzertuaren eskutik girotuko du Santa Zezilia egunaren atariko kontzertua, Udal Musika Bandak. Basteron izango da, ostiral honetan, 20:00etatik aurrera



Mikel Emezabal Bandako zuzendariaren esanetara ariko dira musikariak, ostiral honetan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Bi zentzutan ulertu behar da kontzertuari jarri dioten “Giroak” izenburua, Mikel Emezabal Bandako zuzendariaren hitzetan. “Publikoari eskainiko diogun abesti-sorta hautatzerako orduan, kultur ikuspegi anitza hartu da kontuan. Hain zuzen, munduko hainbat lurralde eta paisaje ederretara bidaiatzerako gonbidatuko gaituzte

zenbait doinuk: AEBetako basamortura (Oregon), Alemanian laku baten ondoan dagoen herrixka paradisiako batera (Ammerland), eta, Mediterraneora (Mar i Bel)”.

Bestalde, “Giroak” izenburuak eguraldiarekin lotu nahi du publikoak. “Cloudburst abestiak, euria eta ekaitza ditu presente, eta entzulea parte-hartzaile aktiboa izatera gonbidatzen du.

Horrela, abestiak euri-soinuaren imintzioa egitera jarriko du publikoak, eskuko hatzekin kriskitakin erabiliz”.

Azaroaren 17ko kontzertuko kantutegia

1. Oregon (Jacob de Haan).
2. Cloudburst (Eric Withacre).
3. Eusko Irudiak (Jesus Guridi).
4. Ammerland (Jacob de Haan).
5. Mar i Bel (Ferrer Ferran).

"Hircocervusa eta amandrea" ikerlana argitaratu du Bazkunak

Deustuko unibertsitatean eta Basteron aurkeztu eta gero, eskuragarri dago herriko liburu-dendetan

Erredakzioa ANDOAIN

Hircocervusa eta amandrea ikerlana Deustuko Unibertsitateko irakasle Luzia Alberro, Josu Bijuesca eta Jose Antonio Marinek osatu dute eta Manuel Larramendi Kultur Bazkunak

deituriko II. Manuel Larramendik Ikerketa Sariko akzesita irabazi zuten. Ikerketa horretan, Manuel Larramendik bere bizitza eta obran ereindako kontraesanak azaleratu eta dagokien testuinguru historiko eta epis-

temologikoan kokatzen saiatu dira. Basteroko liburuaren aurkezpenean, egileekin batera, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko buru Elixabete Perez Gaztelu irakaslea izan zen, Institutu horrek hartu baitu bere gain edizioaren kostua, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera.

Gaiarekiko interesa duenarentzat, Larramendibazkuna.eus webgunean eta udalerriko liburutegietan eskuragarri dago liburua.



Artea eta kultura uztartzen ditu Basteroko eraikinak eta bertako programazioak. AIURRI

Udal egutegia edertuko duten argazkilarien berri eman dute

Abenduan, herritarrek egutegia etxera eramateko aukera izango dute

Erredakzioa ANDOAIN

Udalak, bi agintaldi atzera, egitasmoa martxan jarri zuenetik herriko argazkilarien arreta bereganatu du. Aurten, esaterako, Andoaingo 2024ko Udal egutegia aberasteko 128 proposamen iritsi dira. Aukeratutako argazkiak 12 bakarrik izango dira. Udalak, berriki, irabazleen berri eman du. Jasotako argazki guztien kalitatea nabarmentzeko omen da: “Epaimahaiak azpimarratu duen modura, kalitate handiko argazkiak ikusi ahal izan dira, baina tamalez, hama-bi bakarrik aukeratu behar izan dituzte”.

Saritutako argazki bakoitzak egutegiaren hilabete bat ilustratuko du eta egileak 150 euroko saria jasoko du. Abenduan –data zehazteke dago–, herritarrek egutegia inprimatuta etxera eramateko aukera izango dute. Iazko diseinu bera izango da.

Saridunak

1. Urtarrila: Juan Pablo Fernandez Ramirez, “Escultura metálica”
2. Otsaila: Julian Guerrero Viejo, “Mosaikoa”
3. Martxoa: Ruben Cáceres Delgado, “Zineman”
4. Apirila: Unai Peñalvo Arregi, “Omentzeko artea”
5. Maiatza: Angel Carrasco Errazkin, “Txaranga-Art”
6. Ekaina: Asier Ruiz Izquierdo, “Zutabeak”
7. Uztaila: Manuel Casellas Soria, “Arte urbano”
- 8.-Abuztua: Nerea Hernandez Perez, “Kultur parkean”
9. Iraila: Nahia Rodiño, “Atemporal”
10. Urria: Aitor Gonzalez Gonzalez, “Lekuona”
11. Azaroa: Iosune Marin Asensio, “Soka artean”
12. Abendua: Jose Angel Amuchastegui Esnaola, “Bastero”



Saiakeraren egileak Deustuko unibertsitatean. MLKB

Amaia Agirre Gonzalezen omenezko hitzordua

Zine emanaldi bikoitza antolatu du Zanpatuz mendi-elkarteak, datorren asterako. Asteazkenean eta ostegunean izango dira bi saioak Saroben, 19:30ean hasita. Mendi elkarteak eta herritarrek omenaldia egingo diote Amaia Agirre Gonzalezen familiari

Andoni Urbistondo URNIETA

Urte hasieran, Amaia Agirre mendizale urnietarra eta haren espedizio kidea Iker Bilbao Patagoniako Fitz Roy (3.405m) mendian zendu ziren, elur-jausi baten ondorioz. Urnietako Zanpatuz mendi elkarteak zinema-emanaldia antolatu du azaroaren 22a eta 23rako, hurrengo asteko asteazkena eta ostegunerako. Bi hitzorduak 19:30ean hasiko dira, Sarobe arte eszenikoen gunean. Sarrera doakoa da, baina lekua gorde behar da. Emanaldiei ekin aurretik, omenaldi xume baina beroa egingo zaio Amaia Agirre Gonzalezen senideei. Mendi elkarteko kideek lore sorta bat eskainiko diete gurasoei, eta herritarrei Sarobera bertaratze-ko deia egin dute, sendiak bizilagunen berotasuna sentitu dezan.

Asteazkenean "Abriendo camino" izeneko emanaldia eskainiko da, FEDME Espainiako Mendi Federazioko Emakumezkoen Alpinismo Taldeko kirolariak egindako eskalada bide berriak ardatz dituen emanaldia. Emakumezkoen alpinismo taldeko kirolari hainbatek hartuko dute parte kontakizunean: Uxue Loizu, Amaia Segurola eta beste, denak Amaia Agirre ondo ezagutzen zuten lagunak.



Amaia Agirre mendizale urnietarra. AGIRRESENDIA

Uxue Loizu: "Amaia gure zaindaria zen"

Uxue Loizu dokumentaleko protagonistetako bat da, eta Sarobera bertaratuko da. Bi urte atzera ezagutu zuen Amaia, eta bidai piloa egin zituzten elkarrekin eskalatzera, eskialtzera eta abar. FEDMEko gazte taldeko kideek Groenlandiara egin dute azken bidaia, eta elkartzen diren aldiro Amaia buruan izaten omen dute: "Asko zaintzen gintuen. Medikua zen, eta beti besteon egoeraz arduratzen zen. Faltan botatzen dugu, asko".

Mendian han eta hemen ibiltzea euren bizimodua dela dio Loizuk, "afizioa baino gehiago bizitzeko modu bat". Garbi dio hala egingo ez balute ez lirakeela gustura biziko. Onartzen du arriskuak hartzen dituztela, "baina ia beti neurtuak dira. Gizakiak beti nahi izan du bere muga bilatu, eta mendizaleok ere halatsu gara". Emakume talde bat osatu ahal izatea "kristoren esperientzia izan da. Suerte latza, gurea. Neskekin ikastea, esperientziak konpartitzea gozamen izan da".

Saroben, datorren astean

"Abriendo camino"

Azaroak 22, asteazkena. 19:30, Sarobe.

Proiektu honen bidez, FEDME Emakumezkoen Alpinismo Taldeko kirolariak eskalada-bide berriak ireki nahi dituzte. 2022an taldeak Arabiar Peninsula bisitatu zuen Wadi Rum desertu jordaniarrean basoa izan zuen espedizio batean, basamortu honetako hareharrizko hormetan ibilbideak irekitzeko helburuarekin. Saio honetan ere, mendian iaioak eta ezagunak diren kirolarien presentzia izango ditugu; zuzenean partekatuko dute median bizi izan dituzten esperientziak. Parte-hartzaileak: Emakumezkoen alpinismo taldeko kirolariak (Uxue Loizu, Amaia Segurola...).

"Amaiur"

Azaroak 23, osteguna. 19:30, Sarobe.

Amaiur Peak 5.760 metroko tontorra, Indiako Himalaian kokatua dago. Nafarroako eta Gipuzkoako eskalatzale gazte batzuek 17 bide ireki eta Amaiur Peakera igotzea lortu zuten lehen aldiz. Egun batzuk Ladakh inguruan eskalatzeko eman ondoren, Himalaiako mendebaldean eta India, Pakistan eta Tinako mugatik gertu, Joseba Iztueta eta Ekaitz Maiz orratzaren igoera planteatzen hasi ziren, baina, esan zieten, ez zuten goerarik. Gainerako mendiak baino urrunago egon arren, ezin begi bistatik kendu eta informazioa biltzen saiatu ziren, baina ez zuten askorik lortu, izenik ere ez baitzuen. Hala ere, abenturazale hauek beren senari jarraitu eta mendia igotzea erabaki zuten. Hasierako idearen parte ez izan arren, eta arrazoi meteorologikoengatik eta mendien kokapenengatik hasierako helburuetako batzuk alde batera utzi behar izan ondoren, probatzera animatu ziren. Mendizaletasunean ezagunak diren kirolariak izango ditugu eta euren esperientziak partekatuko dituzte. Parte-hartzaileak: Ekaitz Maiz eta Joseba Iztueta.



"Abriendo camino" dokumentaleko partaideak. ABRIENDOCAMINO

bertako
igogailuak | ascensores

GENETAKO ORSTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

**IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAINTZA
ZORROTZENA**

**2.500 bezerak gugan
dute konfiantza**

943 903 450
bertako.eus



2010 eta 2011 urteetan jaiotako gaztetxoei begirako txapelketa da. LEIZARAN

Andoain Cup, infantil mailako nesken lehen txapelketa

Sari ederra jasoko du txapelketa irabazten duen taldeak: Suediako "Partille Cup"-era joateko aukera

Erredakzioa ANDOAIN

Emakumezkoen lehen eskubaloitxapelketa antolatu du Leizaran herriko taldeak, Gabonei begira, Andoaingo Udalaren eta Partille Cup-en laguntzarekin: Andoain Cup. Hala, abenduaren 28an, 29an, nahiz 30ean, hitzordu garrantzitsua izango dute kirol horren zaleek, herrian. Guztira, 32 talde lehiatuko dira, haurren kategorian (2010-2011 urteetan jaiotako). Antolatzaileen esanetan, Euskal Herriko nahiz inguruetako taldeak espero dituzte, besteak beste: Burgos, Soria, Kantabria, Errioxa, Aragoi...

Sari ederra jasoko du, urte amaieran, Andoainen, txapelketa irabazten duen taldeak: Suediara joateko aukera izango du, Partille Cup "munduko eskubaloitxapelketarik handienan" parte hartzeko. 2024an izango da hori, uztailearen letik

6ra bitartean, Gotemburgon. Urtero-urtero, 50 naziotako 1400 taldek parte hartzen dute eta 5000 partida jokatzen dituzte 70 zelaitan.

Izen-ematea, zabalik

Zabalik da, jada, izen-ematea. Leku mugatuak daude, eta, beraz, garrantzitsua da formularioa betetzea, alde aurretik.: <https://bit.ly/andoain-cup>. Informazio gehiago andoaincup23leizaran@gmail.com helbide elektronikora idatzita lor daiteke. Gutxieneko irizpide batzuk bete behar dituzte parte hartu nahi duten taldeek.

SARI EDERRA JASOKO DU TXAPELKETA IRABAZTEN DUEN TALDEAK

Ganbara saski-taldea

Denboraldi honetan, bost talde ditu Ganbara saski-taldeak, infantil, kadete eta junior mailan. Bi partida jokatuko dira Allurralden, larunbat honetan. Junior mailan BKL taldearen bisitaldia jasoko du Ganbara taldeak, larunbat honetan. 10:30ean hasiko da partida. Infantil mailako neskek BKL taldea jasoko du, larunbat honetan, 09:00tan hasita.



AIURRI

Euskalduna eta Urnieta, Gorengo mailan

Gizonezkoen futbol taldeak Gorengo mailan ari dira. Hamargarren jardunaldia jokatzean da eta honako haxe da Andoaingo eta Urnietako taldeen egoera.

Lehen multzoan jokatzen ari da Urnieta. Aurreko asteburuan, etxean galdu zuen, Sanpedrotarraren aurka (1-3). Sailkapenean, 15. postuan sailkatuta dago bi garaipen eta berdinketa bakarrarekin. Asteburuan Astigarragako Mundaroren aurka ariko dira.

Euskalduna bigarren multzoan lehiatzen ari da, bestalde. Aloña Mendiren zelaian galdu zuten, aurreko asteburuan (3-2). Bederatzi jardunaldi eta gero bosgarren postuan da sailkapenean. Lau garaipen, bi berdinketa eta hiru porrot eskuratu ditu bederatzi jardunaldietan. Asteburu honetan Ubitartera Mondragon taldea hurbilduko da. Bederatzi partidatan beste hainbeste garaipen eskuratu dituzte.

Emakumezkoetan, Urnieta gorengo mailan jokatzen ari da. Aurrekoan Lagun Onak B taldearen aurka galdu zuen (4-2), eta asteburu honetan atsedenaldia izango dute.

Senior mailako Leizaran eta Urnieta eskubaloitxapelketa

Gipuzkoako gizonezkoen 1. Lurraldeko txapelketan zortzigarren jardunaldia iristear da. Leizaran taldeak, aurreko asteburuan, Allurralden garaipen argia eskuratu zuen Urola taldearen aurka (26-16). Ez du oraindik partidarik galdu, eta bost garaipen eta bi berdinketekin sailkapenaren bigarren postuan da. Asteburuan liderraren aurka ariko da, Legazpin. Legazpik, hain zuzen, garaipen argia lortu zuen Urnietan (20-31). Sailkapenean 8. postuan dira. Asteburu honetan Ordizia hirugarren sailkatuaren kantuan ariko dira.

Maila berean, emakumezkoetan, Urnietak bosgarren garaipena eskuratu zuen Egian (13-15). Euskadiko senior ligan, berriz, Leizaranek hirugarren garaipena lortu zuen etxean, Eibar B-ren aurka (27-23). Asteburuan Zaratzen aurka ariko dira.

POSTONTZIA

AGUSTIN DE LEIZA XAKE ELKARTEA ANDOAIN

Agustin de Leiza Xake Elkarteak jokalaria berri bila dabil



Xake partidak, aurtengo San Juan jaietan. AIURRI

Agustin de Leiza Xake Elkarteak Gipuzkoako taldekako xake txapelketarako hirugarren taldea sortu nahi du. Horretarako jokalaria berri batzuren laguntza beharko du, eta ondorengo baldintzak bete beharko dituzte interesatuek: heldua edo 12 urte baino gehiago izatea, xakearen oinarrizko arauak ezagutzea eta partidak jokatuko diren egunetan jokatzeak aukera izatea. Xakera jokatzeak gogoa dutenei luzatutako gonbitea da hau, eta, gaur egun, ez diogu ematen inolako garrantziarik duten xake mailari.

Txapelketa urtarilaren bukaeratik martxoaren erdialdera izango da gutxi gorabehera, eta partidak larunbatetan izango dira, arratsaldeko lauretatik aurrera. Ez da beharrezkoa izango larunbat guztietan parte hartzea (taldekideen artean banatzen dira asteburu bakoitzeko partidak). Agustin de Leiza Xake Elkarteak hartuko ditu, bere gain, txapelketa jokatzeagatik ordaindu beharreko gastu guztiak (federatu fitxa, joan-etorriak, etab.). Ostiraletan ere elkartu ohi gara Elkartearen gutako batzuk, partidak jokatuz, aztertu eta elkarrekin ikasteko asmoarekin.

Interesatuek andoainxake@gmail.com emailera idatzi beharko dute, azaroak 22a baino lehen.

Animatuko al zara gurekin jokatzeraz?





Eduardo Portillo Rasero andoaindarra, Behobiaren azken txanpan. Eskarmentu handia erakutsi zuen, 01:15:16 denbora eginez. AIURRI




Iñaki Etxeberria eta Andoni Lanz, helmugara iristen. AIURRI

Behobia-Donostia, kirol ospakizuna

Milaka partaideren artean, ehundik gora andoaindar nahiz urnietar hurbildu ziren Behobiara. Bakoitzak bere ametsak, erronkak eta helburuak zituen, eta denen artean kirol-ospakizuna osatu zuten



Maite Begiristain, Patxi Cuenca eta Almudena Salas urnietarrak. ALMU SALAS



AURRERA MARKELEKIN

Bus-zerbitzua Urnietatik, eskualdeko eta estatu osotik etorritako korrikalariekin

Aurrera Markelekin ekimenak bus zerbitzua antolatu zuen, geldialdi bikoitza eginez. Lehena, HK10 hotelean. Urnietako hotelean estatu osoko hainbat korrikalarik ostatu hartu zuten. Hoteletik emandako datuen arabera, Bartzelona, Madrid, Las Palmas, Girona, Lleida, Balears, Burgos,

Cordoba, A Coruña, Granada eta Teruel aldetik hurbildutako korrikalariak zeuden. Bigarren geldialdia kiroldegia parean egin zuten. Urnietako eta eskualdeko korrikalariez gain, Asturias aldeko hainbat lagun batu ziren bertan. Azken horiek Gurian pasa zuten gaua.



Menta izan zen lehen andoaindarra. MENTA



Marques, pozarren, Gros aldean. MARQUES



Mikel Eguren andoaindarra. AIURRI




Agate Arregi, Celia Fernandez eta Lorea Barkaiztegi urnietarrak, proba ondoren. AIURRI



Iker Telletxea andoaindarra. AIURRI



Josu Arregi andoaindarra. AIURRI



Joseba Erkizia andoaindarra. AIURRI

Helmugaraino iritsi ziren lasterkarien denbora

LASTERKARIAK Andoain

Javi Menta Martinez	01:05:30
Ander Lazkano Letamendi	01:10:58
Aritz Mujika Bidaurreta	01:14:04
Iñigo Duarte Mijangos	01:14:15
Eduardo Portillo Rasero	01:15:16
Ander Setien Iguaran	01:16:42
Iban Muñoz Gomez	01:16:42
Garikoitz Alberro Nuñez	01:20:16
Iker Telletxea Iriarte	01:21:06
Peio Manterola Pavo	01:22:35
Javier Lazcoz Dominguez	01:23:02
Iñaki Arruti Iraola	01:24:35
Julen Rivas Baztarrika	01:25:25
Josu Mieres Hernández	01:25:30
Ekain Gorrotxategi Sanz	01:25:58
Josu Arregi Formentín	01:26:10
Gustavo Marqués Martínez	01:26:42
Mikel Eguren Calonge	01:27:24
Sebastian Alejo Bianchi	01:27:33
Pello Alkorta Eraunzetamurgil	01:27:52
Roberto Salgado Larraza	01:28:52
Andoni Etxezarreta	01:29:32
David Elvira Gainzarain	01:29:41
Iker Alkain Balda	01:29:51
Terunori Kaihara	01:30:41
Beñat Setien Iguaran	01:32:04
Iñigo Arruabarrena Cabrera	01:32:51
Igor Rabadan Amas	01:33:46
Aitor Collantes Gutiérrez	01:35:47
Jon Gil Alvaro	01:36:38

Patxi Nieto Gaztelu	01:37:17
Eneko Idigoras Eizaguirre	01:37:26
Ion Otaegi Olasagasti	01:37:27
Maddi Elizasu Santa Cruz	01:38:56
Silvia Urbaneja Muñoz	01:38:57
Aritz Caballero Amas	01:39:06
Ion Jauregi Artola	01:39:20
Mikel Collantes Ibáñez	01:39:24
Oscar Sanchez Laso	01:41:23
Iñaki Etxeberria Barriola	01:42:25
Andoni Lanz Bordagarai	01:42:25
Alejandro Hernandez Portero	01:43:12
Alex Hernandez Merchan	01:43:30
Alberto De Lucas Sanchez	01:43:33
Almudena Carvajal Noriega	01:43:46
Iban Barrutia Uralde	01:44:02
Alex De Lucas Sanchez	01:44:20
Garazi Lopez Ubillos	01:44:33
Maidier Arbaolaza	01:45:59
Ainara Marin Almuedo	01:46:48
Francisco Javier Mancera	01:46:57
Igor Olazaguirre Ugarte	01:47:00
Iraitz Compains Mugica	01:47:22
Saioa Lopez Amado	01:48:00
Sergio Monsalve Manchado	01:48:26
Iñigo Guirado Perez	01:50:15
Marta Aramburu Iñigo	01:50:43
Leyre Barreña Goikoetxea	01:51:51
Alberto Martin Del Rio	01:52:44
Unai Laskibar Hernandez	01:52:46
Juan Carlos Solana Vecino	01:53:17
Guillermo Arijá Pascual	01:54:04

Joseba Erkizia Itoitz	01:54:09
Joxe Mari Gonzalez Santacruz	01:54:25
Alexey Fursenko	01:55:08
Dani Fursenko	01:55:08
Jon Ander Ubeda Goikoetxea	01:56:03
Alejandro Conde Herrada	01:56:23
Mikel Conde Correa	01:56:25
Hipolito Barreña San Juan	01:56:45
David Belder Pinedo	01:57:46
Nura Ariztimuño Brau	01:57:53
Alvaro Felipe Moreno	02:00:37
Iban Alonso Pascual	02:00:38
Ander Olasagasti Galarraga	02:04:37
Nekane Minguez Villanueva	02:06:03
Virginia Ciganda Muriel	02:07:25
Imanol Garin Perez	02:10:34
Yanire Mosquero Nuñez	02:12:29
Antxon Ubiria Bergara	02:18:38
Natalia Arteché Cerrato	02:21:26

Urnietak

Unai Lizeaga Apaolaza	01:13:26
Eneko Ramirez Gonzalez	01:15:44
Mikel Costas López	01:18:48
Iñaki Narbarte Garmendia	01:19:28
Igor Arruti Salgado	01:20:22
Ander Zubizarreta Ansa	01:20:46
Aitor Iturralde Usarralde	01:22:40
David Sierra Salamanca	01:24:30
Koldo Velasco Urizar	01:24:54
Xabier Ansa Urruzola	01:28:43
Iosu Lopez Niño	01:31:11
John Sanchez Sanchez	01:31:34

Oscar Pavón Vela	01:32:47
Paul Gallo Arretxe	01:33:49
Norman Cuenca Gallego	01:35:25
Pedro Arroyo Tamayo	01:37:32
Uxue Salaberria Telleria	01:37:41
Maria Salaberria Telleria	01:37:42
Miren Goikoetxea Ugalde	01:38:33
Jose Luis Romero Martin	01:38:51
Jon Iruretagoiena Rama	01:39:33
Ander Paco Garcia	01:40:42
Pablo Santos Cuesta	01:41:22
Eneko Sasiainbarrena	01:42:23
Lander Sanchez Zurdo	01:42:45
Bego Villas Miguel	01:43:06
Periko Juanikorena Erro	01:43:49
Jonathan Lopez Infante	01:43:56
Saioa Martinez Fonseca	01:44:04
Iñaki Baños Osa	01:44:55
Vicente Carmona Sanchez	01:44:55
Jon Mikel Lomeña Marcos	01:46:52
Xabier Olanar Martin	01:48:57
Benjamin Rodenas Gallardo	01:50:05
Agatea Arregi Diez	01:56:08
Mikel Garcia Monteiro	01:56:09
David Cuenca Gallego	01:56:09
Enrique Campos Jimenez	01:59:34
Patxi Cuenca Navas	02:03:33
Juan Mataracena Alba	02:03:56
Aimar Lizaso Garcia	02:05:00
Ana Rodríguez Cantero	02:16:21
Maite Begiristain Iceta	02:18:38
Almu Salas Andrade	02:18:39

PATINATZAILEAK Andoain

Nerea Hernandez Perez	01:05:55
-----------------------	----------

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 16

ANDOAIN Dokumentala

"Guztiekin jakin dezatela" izenburukoa. Dokumentala eta gero, Indarkeria Matxistaren eremuan erreparazioan aditua den Mugarik Gabe elkarteko Lidia Ruizekin eztabaida.

18:30, *Bastero*.

OSTIRALA 17

ANDOAIN Yoga familiar

Familia lantegiak azaroan, Andoaingo Euskara lantegiaren eskutik, 2-3 urteko haurrak dituzten familientzat, Eider Hildalgok gidatua. 17:00. *Izen-ematea: 943 300 831. Kulunka yoga.*

URNIETA Hitzaldia

"Sexualitateak teknologia berrien garaian: erronka berriak familientzat".

17:30, *Kiroldegia, Urnieta*.

ANDOAIN Kontzertua

Udal Musika Eskolako Bandaren emanaldia, Santa Zeziliaren ospakizunarekin bat eginez. 20:00, *Bastero*.

LARUNBATA 18

ANDOAIN Informazio-puntua

Partaidetzako bigarren fasea martxan dago. Herritarrek botoa eman dezakete, 14 aukeren artean. 11:00-13:00, *Zumea plaza*.

ANDOAIN Urteurrena

Aita Larramendi ikastolako ikasle-ohien bazkaria. 14:00, *Goikoplaza*.

IGANDEA 19

ANDOAIN Urteurrena

Familia eta gaztetxoaren eguna antolatuta du Irunberrik, elkartearen XXV. urteurrenaren harira:

10:00 Mizpiradi sagardotegira bisitaldia.

14:00 Irunberrin bazkaria. Bakoitzak berea eraman.

16:30 Karaokea tabernan. *Egun osoan.*

**ANDOAIN Mugimendu feministaren hitzordu-sorta**

Greba batzordea martxan da, eta askotariko ekitaldiak iragarri dituzte. *Azaroak 18, larunbata. Mural margoketa. 11:30, Joakin Larreta etorbidea. Azaroak 22, asteazkena. Mahai-ingurua. 18:30, Bastero. Azaroak 23, osteguna. Agerraldi jendetsua.*

ANDOAIN Haur antzerkia

"Andereño", Anita Maravillas Teatro. 12:00, *Bastero*.

ANDOAIN Kontzertua

Sorabillako Auzo Elkarteak antolatuta, Iruñeko Mirua abesbatzaren koru kontzertua. 12:15, *Sorabillako eliza. Doan.*

ASTELEHENA 20

ANDOAIN Yoga familiar

Familia lantegiak azaroan, Andoaingo Euskara lantegiaren eskutik, 4-5 urteko haurrak dituzten familientzat, Eider Hildalgok gidatua. 17:00. *Izen-ematea: 943 300 831. Kulunka yoga.*

ASTEARTEA 21

ANDOAIN Informazio-puntua

Partaidetzako bigarren fasea martxan dago. Herritarrek botoa eman dezakete. 11:00-13:00, *Eskola kalea*.

ANDOAIN Irakurketa kluba

17:00tan, 2019an jaiotako haurrak lagunduko dituen heldu batekin. 18:00tan, 2015etik 2018ra jaiotakoekin. 17:00, 18:00. *Udal Liburutegia.*

ASTEAZKENA 22

ANDOAIN Ipuin kontaketa saioa

Amaia Elizagoyen eta Irati Celestino. 17:00 4 urtetik gorakoentzat. 19:00 "Munduko emakumeak", helduentzat. 17:00, 19:00. *Udal Liburutegia.*

URNIETA Kalejira

Udal Musika eskolako irteera. 17:30, *Udal musika eskola*.

URNIETA Dokumentala

Amaia Agirre Gonzalez gogoan, Zanpatuzek antolatuta. 19:30, *Sarobe*.

OSTEGUNA 23

ANDOAIN Informazio-puntua

Partaidetzako bigarren fasea martxan dago. Herritarrek botoa eman dezakete, 14 aukeren artean. 17:00-19:00, *Goikoplaza*.

URNIETA Hitzaldia

"Osasun mentala: zeure burua ulertzen ikasi". 17:30, *Kiroldegia, Urnieta*.

URNIETA Dokumentala

Amaia Agirre Gonzalez gogoan, Zanpatuzek antolatuta. 19:30, *Sarobe*.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Los asesinos de la luna**

Lar, 18. 19:30.
Ig, 19. 19:30.
Asti, 20. 19:30.

Trolls, 3

Lar, 18. 17:00.

Ig, 19. 17:00.

La ermita

Lar, 25. 19:30, 22:00.
Ig, 26. 19:30.
Asti, 27. 19:30, 22:00.

El osito Boom

Lar, 25. 17:00.
Ig, 26. 17:00.



SINOPSIS

**Los asesinos de la luna (Killers of the flower)**

Zuzendaria: Martin Scorsese. **Aktoreak:** Leonardo DiCaprio, Robert De Niro, Lily Gladstone, Jesse Plemons, Brendan Fraser... **Herrialdea:** AEB (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Thrillerra, Westernra, Drama. **Iraupena:** 206 min.

Hiru ordu eta erdiko iraupeneko filma

Oklahoman, Osage nazioaren lurretan, petrolio aurkitzean, bertako biztanleak banan-banan hiltzen dituzte, FBI krimenak ebazteko esku hartzen duen arte.

Kritikak bi protagonista nagusien lana txalotu du. Di Caprio eta Gladstone, beraz, Oscar sarietako bidean egon daitezke film honi esker. Iraupen luzeko filma.



andoainDARRA
euskaraz

Bost lanposturen eskaintzaren berri eman du Andoaingo Udalak

Baldintzetako bat langabezia-egoeran egotea da, eta Lanbiden izena emanda

Erredakzioa ANDOAIN

Hauexek dira Andoaingo Udalak bete behar dituen lanpostuak: bi administrari, euskarazko testu-zuzentzailea, lehen mailako iturgin ofiziala eta lehen mailako igeltsero ofiziala. Azaroaren 20a baino lehen eman behar da izena, Lanbiden bertan.

Besteak beste, erakunde horretan izena emanda egon behar du eskatzaileak. Eta baita langabezian egotea ere. 5, 6 edo 9 hilabeteko lan-hitzarmenak izango dira. Epe laburrean, bost horiez gain, eskaintza zabalduko duela aurreratu du Andoaingo Udalak.



ERRAN

Mirua abesbatza, Sorabillan

Sorabillako San Martin elizan izango da kontzertua, azaroaren 19an, eguerdiko 12:15etatik aurrera, Sorabilla Auzo Elkartek antolatuta. Doan da sarrera. Iruñean kantuzale talde batek sortu zuen abesbatza, 2010ean. Elkarrekin kantuan aritzea, gozatzea eta goza araztea izan zen bere helburua hasieratik, eta horri helduta segitzen du egun ere.



AIURRI

Psikomotrizitate-tailerra

Psikomotrizitateak haur txikiengan dituen onurak azaldu nahi dizkie familiei La Salle Berrozpe Ikastetxeak. Datorren azaroaren 16an izango da, arratsaldeko 17:00etan hasita. 2022an jaiotako haurrei begirako tailerra da. Psikomotrizitate-tailerra HHko eraikinean izango da, eta Iñigo Arozenak eta Lorena Lopezek zuzenduko dute. Izen-ematea: 943 59 05 57.

POSTONTZIA

DANOBTGROUP ANDOAIN

Danobatgroup-ek euskararen eguna ospatzeko lehiaketa kaleratu du



Danobatgroup industria taldea espezializatuta dago makina-erreminten fabrikazioan, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan. Danobatgroup kooperatibaz gain, Danobat, Soraluze, Goimek, Latz eta Ideko kooperatibek osatzen dute taldea.

Danobatgroup-ek harreman-sare zabala du eta lanerako hizkuntza asko erabili eta kudeatzen ditu. Baina Euskal Herriko lantegietako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko erabakia hartua du, eta horren adierazgarri dira taldeko kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak eta lortutako Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak.

"Euskaraz izango gara" da Danobatgroup-ek etorkizunerako aurreikusten duen agertokia, eta hori errealitate bihurtzeko lanean ari da, bai eguneroko lanean, ikerketa eta garapenean, teknologia berrietan, elkarren arteko harremanetan... Baina, egunerokotasunetik harago, jendarteari ere euskararekiko duen konpromisoaren berri eman nahi dio Danobatgroup-ek. Ildo horretan, Danobatgroup-ek inguruan garatzen diren hainbat ekimenetan parte hartzen du. Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko, aurten, berriz ere lehiaketa antolatu du, Danobatgroup kooperatiba taldeak enpresak dituen herrietara zein gizarte osora zabalduta. Lehiaketan parte hartzeko, ondorengo helbidean sartu behar da: info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2023.html. Abenduaren 3ra arteko epea egongo da lehiaketan parte hartzeko, eta erantzun zuzena eman dutenen artean produktu ekologikoz betetako otarre bat zozkatuko da. Euskaraz izango gara.

ESKERTZA

URNIETA

Gau Beltzaren antolatzaileak:

Urnietako Magale Salestarrak ikastetxetik eskerrona adierazi nahi diogu pasa zen urriaren 31n herrian antolatu genuen festara gerturatu ziren guztiei.



Gau Beltza, Urnietan. AIURRI

BEDERATZIURRENA

ANDOAIN

Milagrosaren Bederatziurrenaren ospakizuna iristear da. San Martin parrokiaren izango da, hurrengo azaroaren 19tik 24ra. Asteazken zehar eta larunbatetan arratsaldeko 18:30ean hasita, mezaren ostean. Igandean, berri, 10:30etako eta 12:30etako mezen ondoren.

ODOL-EMAILEAK

URNIETA

Azaroak 30, osteguna.

16:30-20:30. Gaztelekua. Hitzordua hartzeko: 943 007 884.

OHARRA

ANDOAIN, URNIETA

Aiurriko egutegia.

Bi aste barru jasoko dute Aiurriko harpidedunek urteko egutegia.

DANOBTGROUP

HARTU PARTE DANOBTGROUP-EN
EUSKARAREN EGUNA
OSPATZEKO LEHIAKETAN!

euskaraz izango Gara



Sartu lehiaketaren estekan, erantzun galdera eta irabazi produktu ekologikoz betetako otarre bat.

info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2023.html

PARTE HARTZEKO AZKEN EGUNA 2023ko abenduak 3 00:00 h

DANOBTGROUP / DANOBT / GOIMEK / IDEKO / LATZ / SORALUZE



Sarituak eta udal ordezkariak Ainara Ugalde Martinen alabarekin eta Yolanda Arrieta Euskal Idazleen elkarteko ordezkariarekin batera. AIURRI

Martin Ugalde ipuin-lehiaketako irabazleak

Hilaren 9an egin zuten sari-banaketa ekitaldia, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan. Ohikoa duenez, sariketara hurbildu zen Martin Ugalderekin alaba, Ainara. Udal Musika eskolako ikasleek girotu zuten emanaldia

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoni Alvarez alkatea, Ainara Ugalde Martin Ugalderekin alaba, Marta Lasa kultura, hezkuntza eta euskara zinegotzia, eta Yolanda Arrieta Euskal Idazleen elkarteko ordezkaria izan ziren ekitaldian mahai buru. Garazi Kamio aritu zen aurkezle lanetan.

A Maila (10-11 urte).

1. saria: "Kuskusaren bila". Egilea: Jon Azpiroz Agirre. "Fikzioa egiteko ahalegina egin duelako, eta garai batean egokitutako historia delako, eta asma bera dagoen kontakizuna delako".

2. saria: "Antonio Xerifa". Egilea: Jannu Iriondo Audikana. "Historia sinpatikoa eta erritmo

oso polita duelako, adinari dagokion ingenuitatea eta fantasia puntua lortzen duelako, eta umore pixka bat ere baduelako".

Finalista: "Euskal Herrira" Egilea: Haizea Alustiza Aizpuru.

B Maila (12-13 urte).

1. Saria: "Gauerdiko zitzadak" Egilea: Aiora Otamendi Baltasar.

"Tranpa eta suspensea daukan historia, hasieratik ea zer gertatzen den pentsatzera eramaten zaituelako, figura poetikoak eta egoerak erreteko ahalmena daukalako eta hizkuntza ondo menderatu eta hizkuntza jasoa erabiltzen duelako".

2. saria: "Margarita Arbuia-garria" Egilea: Olaia Rivas Lopez. "Lehen aldia eta orain aldia ederki uztartzen dituelako, intriga sustatzen duelako, genero beltza eta elkarriketak asko eta egoki erabiltzen dituelako".

Finalista: "Errebantxa" Egilea: Odei Jimenez Arizala.

C Maila (14-15 urte).

1. saria: "Irulegiko Eskuaren negarra" Egilea: Laiene Arteaga Eizagirre. "Hasiere eta izenburua oso politak dituelako, puripurian dagoen gai bat erreteko

tzen duelako, oso ondo dokumentatua eta idatzita dagoelako, eta tentsioari historia guztian oso ondo eusten diolako".

2. saria: "Bizitzaren gazi-gozoak" Egilea: Ekiñe Lasa Lopez. "Hasiere poetikoa duelako, eta poetikotasunari eusten diolako eta baita ere oso ondo idatzita dagoelako".

Finalista: "Itsaslabarreko misterioa". Egilea: Izaro Hernani Irulegi.

Finalista: "Takoiekin Neolitikoa". Egilea: Maren Aranburu.

Finalista: "Pantailaren atzean". Egilea: Irati Larrañaga Zendoia.

D Maila (16-17 urte).

1. saria: "Grisaren gisean inozentziarik ez". Egilea: Gorka Robles Maiz. "Idazketa maila altua eta oso poetikoa delako, bigarren pertsonan idatzitako historia delako, eta hau ez da oso ohikoa".

2. saria: "Zauri Iraunkorrak". Egilea: Naroa Miner Uribe-Etxeberria. "Bihotzetik eta erraietatik idatzita dagoelako, adikzioa eta drogaren mundua gaitzat hartuta, oso ondo idatzita dagoelako eta bukaera irekia uzten duelako".

Finalista: "Itzalen eta argien artean". Egilea: Maddi Vitoria Gutierrez.

Finalista: "Teknologiaren bidez kontrolatuak" Egilea: Aner Uli Ezquerro.

Finalista: "Amaren malkoa". Egilea: Gorka Robles Maiz.

Rikardo Arregi kazetaritza sarien aurtengo finalistak

Kazetaritza eta Komunikazio sarietako irabazleak datorren azaroaren 29an aditzera emango dira, Bastero Kulturguneko auditorioan egingo den sari-banaketa ekitaldian. Podcastak nabarmendu dira aurtengo finalistaren artean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Urtero lez, hemen dator Euskal Herri mailako Rikardo Arregi Kazetaritza Saria. Jada iragarri dituzte bi kategorietan finalera iritsi diren zortzi kideak: lau hautagai Kazetaritza Saria eskuratzeko eta beste lau Komunikazio Sariari begira.

KAZETARITZA SARIA

BIDEAK podcasta. Migrazioaren eta errefuxiatuen gaiari erreparatu dio Naiz irratiak. Bidasoko pasabideari helduta, askotariko ahotsak bildu dituzte lan honetan, besteak beste: ordezkari instituzionalak, adituak eta afera lehen eskutik bizi dutenak.

"Zelan sentitzen zara?" monografikoa.

Bizkaiko Geuriak 2023ko ekainean argitaratutako monografikoa da. Emozioen eta sentimenduen askotariko arlotatik erreparatu diote bertan: psikologia, medikuntza, kirola, kultura, heriotza, gazteak, adinekoak...

KINKA podcasta. Larrialdi klimatikoa hipside du BERRIA egunkariak podcast honetan. Bertan, informazio esanguratsua emateaz gain, erreportajeak jorratzen dituzte, baita elkarriketak ere, hamabostean behin.

"Urte batetik bertera, mundu batetik bertera" kronikak. Xabier Itzainak dantzan.eus webgune-rako idatzitako kronikak dira.

KOMUNIKAZIO SARIA

LORE HOSTOAK podcasta. Ekain Pezerek gidatzen duen musika-elkarriketa saioa da, EITB-ren eskutik, astiz eta patxadaz entzutekoa. Euskal musikari berterano eta gazte andana bat ezagutzeko parada ematen du saioak.

#10garrena podcasta. 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren

aitzakian, EITBk ondutako podcasta da. Itxuraz ezinezkoak diren egoerak pintzen dituzte mahai gainean esatariek.

MUAK ET websaila. Tik-tok formatuko bideo laburrak, Jokin Etxeberri eta "bere bidegile lagun friki" taldearen eskutik. Bizpahiru minutuko saioak dira, eta, bertan, sei emakume sortzaile ezagutzeko aukera emango dute.

HARPA JOTZEN podcasta. Hilekoa, menopausia, ligatzeko teknikak eta sexua, euren espektakuluetan Idoia Torregarraik eta Mirari Martiarenak aspalditik jorratzen dituzten gaiak dira. Bada, orain, EITB-ren eskutik, podcast lengoaiara egin dute salto. Entzumenari lekua eginez, euskal ironia estilo propioa sortu duten artisten proposamena da.